

PORCELANAS BIDASOA: INDUSTRIA, ARTEA ETAY MEMORIA

Erakusketa. 2016ko Abenduaren 15etik 2017ko Martxoaren 5era arte
Oiasso Erromatar Museoa, Irun (Gipuzkoa)



Oiasso Museoak “**Porcelanas Bidasoa: Industria, artea eta memoria**” erakusketa dakar Irunera, portzelana-fabrikazioan erreferente izan zen enpresa baten ondarearen garrantzia nabarmendu nahian. Enpresa horren baxerek prestigio handia zuten nazioarteko merkatuan: Pablo Picassok eta Salvador Dalík ere diseinatu zituzten, baita Javier Mariscalek ere, urte batzuk geroago. Museoaren zati handi bat okupatzen du erakusketak, eta fabrikaren historian mugarri izan ziren pieza nagusiak biltzen ditu.

Lehenik, beheko solairuan, **Karlos Olivéren** argazkien erakusketa bat dago (**Irun, 1976**). Porcelanas Bidasoa fabrikaren azkenetako zenbait une erretratatu zituen argazkilariak, eta haren lanak erabateko fineziaz irudikatzen du espazioen dramatismoa, argien eta itzalen arteko elkarriketa dotore baten bitartez. Hogei irudik osatzen dute erakusketa, eta fabrikaren bizitza osoko une jakin batean gelditutako denbora laburtzen dute. Alde horretatik, une horren dramatismoa ez da melodramatikoa; aitzitik, maitasun eta gozotasun teatrala dario, eta, horren osagarri, garai desberdinetan Porcelanas Bidasoa lantegian ibili ziren pertsona batzuen ikus-entzunezko testigantzak daude.

Erakusketa



Lehenengo eta bigarren solairuetan, berriz, Txinako portzelana tradizionalen inspiratutako bukoien bilduma bikain bat dago, baita Sevres estiloko murkoak ere, abilezia tekniko handia eskatzen duten pieza handiak.

Gainerako bildumak Oiaso aretoan daude. Nazioarteko artista handiekiko lankidetza ohikoa izan da Porcelanas Bidasoa enpresaren historian; batez ere, baxerak eta apaingarriak diseinatzeko: Salvador Dalík, 1980an, “Zazpi musak” seriea diseinatu zuen, eta, 1981ean, “Loreak” eta “Dantzariak” serieak; Pablo Ruiz Picassok “Tauromakia” seriea osatu zuen, 1950eko hamarkadan; Javier Mariscalek mahairako bilduma original bat eta “I love NY” eta “Paisaia metafisikoa” serieak sortu zituen, 1990eko hamarkadan; eta, garai berean, Andrés Nagelek baxera bat diseinatu zuen.



Azkenik, aipatzekoa da Conchita Lacaren lana: sortzeko gaitasun handia zuen, eta

teknika artistikoetan aditua zen; horri esker, oso obra oparoa ondu zuen, eta, besteak beste, loreak diseinatu eta eskuz pintatu zituen.


Karlos Olivéren ekimen bat da erakusketa, eta **Irungo Udalaren** eta **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** arteko elkarlanean oinarritzen da. Hain zuzen ere, udalerrri honetako arte-industriaren iragana ezagutarazi nahian Oiaso Museoan jarriko den erakusketa multzo baten abiapuntua da.

Zalantzarik gabe, Irungo iruditeria kolektiboaren parte da **Porcelanas Bidasoa**. Erakusketa honen xedea kontaketa oso bat ematea da, lantegiaren eta haren ondare ukigarri eta ukiezinen garrantzia azpimarratzeko, argazki artistiko eta historikoez, testigantza pertsonalez eta portzelanazko tresna eta piezez baliatuz.

La empresa Porcelanas Bidasoa

Porcelanas Bidasoa Sozietatea 1935ean eratu zen Salvador Echeandia Gilen eta Jose M^a Berastegui Echevarriaren kapitalekin eta europar portzelanaren eremuan Pablo eta Gabino Ochoteco anaiek zuten esperientziarekin.

Instalazioak 1936an eraiki ziren eta suntsituak izan ziren Gerra Zibilean, geroago berreraiki ziren Limogesetik zetozen teknikari frantziarren aholkularitzarekin. Luso Española de Porcelanas S.A. enpresa 1940an sartu zen sozietatean eta bultzada berri bat eman zion enpresari. Honek produktuen katalogoa berritu eta instalazioak modernizatu zituen.



Argazkia: Karlos Olivé

Geroagoko urteetan etengabeko bilakaera eta hazkuntza etengabeak izan ziren, kalitate artistikoaren, teknologia berriak sartzearen, berrikuntzaren eta hazkuntza komertzialaren aldeko apustua eginez. Hala ere, merkatuko lehia gero eta zailagoa bihurtu zen 1991etik, eta 2009ra arte iraun zuen, urte hartan behin betiko itxi baitzen; handik gutxira eraitsi zen lantegi multzoa.

Fitxa teknikoa:

Argazkiak: **Karlos Olivé**

Testuak eta piezen hautaketa: **Iñaki Sagarzazu**

Argazki historikoak: **Archivo de José Mari Castillo eta Miguel Salaberria**

Ekoizpena: **Museo Oiasso**

Diseinu grafikoa: **K6 Gestión Cultural**

Komisarioak: **Ainara Martín y Mertxe Urteaga**

Ordutegia:

Astearteak, asteakenak, ostegunak eta igandeak: 10:00-14:00

Ostiralak eta larunbatak: 10:00-14:00h eta 16:00-19:00



#PorcelanasBidasoa

Oiasso Erromatar Museoa

Eskoleta, 1. 20302 Irun

☎ 943.63.93.53. www.oiasso.com